

GURE PRODUKZIOA

Sagar basatiaren hazietatik abiatzen gara, eta, landareak gure mintegian hazkunde-tamaina egokia erdiesten duenean, produkzioaren zati bat txertotarako erabiltzen dugu gure mintegian bertan.

Gure eskualdeko antzinako aldaerak txertatzen ditugu (*Negu sagar zuria, Arkumexa, Erregin sagar horia...*), nutrizio balio eta iraupen handikoak eta baldintza naturaletan gehiago irauten dutenak (maiatzera arte).

Produkzioaren bertze zati bat PATXAKA MENTU OIN gisa saltzen dugu. Bezeroak berak nahi duen sagar aldaera txerta dezake, eta, hala, gure PATXAKA MENTU OINAREKIN sagarrodoaren zikloa osatu.

Bertako sagarrondo basatiaren emaitza dastatuz.



NUESTRA PRODUCCIÓN

Partiendo de las semillas de manzana silvestre, una vez que la planta llegue a su tamaño adecuado de crecimiento en nuestro vivero, parte de nuestra producción va destinado al injerto realizado en nuestro mismo vivero. Injerto con variedades antiguas de nuestra zona (*Negu sagar zuria, Erregin sagar horia...*) con más alto **valor nutritivo y cuya conservación es más duradera** en ambiente natural (hasta el mes de mayo).

Otra parte de producción tiene como destino la venta como PATRON PATXAKO. El cliente puede injertar la variedad de manzana que desee, y así podrá completar el ciclo de nuestro manzano con patrón PATXAKO. Podrá degustar el fruto del manzano silvestre autóctono.

MINTEGI eta BEZERO, elkarrekin lan egin dezakegu aldaera autoktono natural hau berreskuratzen, PATXAKA MENTU OINA, eta haren emaitzarekin luzaroz gozatzuz, hau da, sagar autoktonoaren fruitu aldaera goxoekin.

Podemos trabajar conjuntamente VIVERO y CLIENTES en la recuperación de esta variedad autóctona natural, con PATRON PATXAKO, y disfrutar largamente de sus frutos: sus deliciosas variedades de manzana autóctona.



Juan Gamio Grazenea

Bengoarretxea Etxea
31753 BEINTZA-LABAIEN (Nafarroa)
Tf.: +(0034) 646635524
info@zubialdepatxakak.com
www.zubialdepatxakak.com



Bertako & Betiko
Guk oina, zeurea fruitua

BEINTZA-LABAIEN
JUAN GAMIO GRAZENEA
Tf.: +(0034) 646635524



GURE PATXAKA MINTEGIA

Labaienen dago gure MINTEGIA, Nafarroan, eta produktu berezi bat landu, zaindu eta eskaintzen dugu: **SAGAR BASATIA** edo **PATXAKA** (*Malus Sylvestris*).

Antzinako fruta arbola basati eta **autoktono** hau, mentu oinetarako erabiltzen dena, desagertzeko zorian egon da gure alderdian. Hala, pentsatu genuen fruta arbola hau ikertzen eta lantzen hastea hura kontserbatzeko eta dauden aldaera autoktonoak ekoiztea.

Gure mintegian, sagar PATXAKAren **haziak hautatzen** ditugu, eta horietatik sortutako landareak eskaintzen dizkiegu gure bezeroei.

NUESTRO VIVERO PATXAKO

Situado en la localidad navarra de Labaien, nuestro VIVERO produce, cuida y ofrece un producto singular: **el MANZANO silvestre PATXAKO** (*Malus Sylvestris*).

Antiguo árbol frutal silvestre, autóctono, el manzano de pie PATXAKO, estaba en vía de extinción en esta zona. Y decidimos investigar, conservar y trabajar en el cuidado de estos árboles frutales y generar sus distintas variedades autóctonas.

Nuestro vivero desarrolla a partir de las **semillas** seleccionadas de la propia manzana del PATXAKO las plantas que ofrecemos a nuestros clientes.

PATXAKA ARBOLA

Antzinako fruta arbola basati bat izanik, **egiazko esentzia eta genetica gordetzen** ditu. Bertze txertaka mota batzuen bizialdiarekin konparatuta (25-40 urte), gure **PATXAKA** txertaka **100-150 urte** bizi daiteke.

Askoz ere gogorragoa da mendialdean, bere **erro sakon** eta **indartsuei** esker. Haizete gogorrei eta hezetasunari aurre egiteko eta baldintza zail-zailetan bizitzeko gauza da, baita malda handiko eta emankortasun txikiko lekuetan ere.

Frogatuta dago ohiko gaixotasunei **erresistentzia** handia diela (fitoftora, zorria, onddoak...). Artzaintzarekin ere bateragarria da, bertze arbola batzuk ez bezala haren **zainak lurrean sakon errotzen baitira**.



EL ÁRBOL PATXAKO

Es un antiguo árbol frutal **silvestre que conserva la verdadera esencia y genética** del manzano. Frente a otros patrones de longevidad de 25-40 años, nuestro pie **PATXAKO** tiene una vida de **100-150 años**.

El árbol es mucho más resistente en la zona montañosa por **la profundidad y fortaleza de sus raíces**. Expuesto a vientos extremos, zonas húmedas, duras pendientes y de fertilidad difícil, está capacitado para hacer frente a estas circunstancias adversas.

Está demostrada su **resistencia** a las enfermedades habituales (fitoftora, pulgón, hongos...) Puede convivir con el pastoreo porque a diferencia de otros frutales **su enraizamiento no es superficial**.

FRUITUA: GURE SAGAR AUTOKTONOA.

PATXAKA, arbola eskuzabala da. Fruitu **ekoizpen handikoa** da, bere genetikari eta izaerari esker. Bere fruituaren **kalitatea** eta **nutrizio balioa** askoz handiagoak dira. **Sustraitze** sakonagoa lortzen duenez, azalekoagoak diren bertze mentu oin batzuk iristen ez diren mineralak eta mantengutza xurgatzera iristen da.



EL FRUTO: NUESTRA MANZANA AUTÓCTONA.

El **PATXAKO** un árbol generoso. Tiene **gran productividad** de fruta, debido a su genética y naturaleza.

La **calidad y el valor nutritivo** de su fruta es mucho mayor. Su **enraizamiento** al alcanzar más profundidad absorbe minerales y nutrientes que otros patrones, más de superficie, no pueden adquirir.